



Aresti eszenatokian, Oskorriren eskutik

GABRIEL ARESTIRI eskaintako ikuskizun zaharberritua aurkeztu zuen Oskorri musika taldeak otsailaren 22an Tolosan. Lehen emanaldia izan zen, Udalak antolatuta eta Kilometroak 13ren babespean egina (nabaritu zen sarrera salmentan), egun batzuk lehenago Donostiako Victoria Eugenia clubean gonbidatuentzako saio berezia egin bazuten ere.

Musika taldea izan beharrean, antzerki taldea ikustera joan al ginen galdetu zidan ondoko lagunak, taldekideak eszenaratzen ikusi zituen. Izan ere, eszenografiak eta partaideen sarrerak gehiago zuen antzerkitik musikatik baino. Gabardinez, kapelaz, berokiz eta aterkiz hornituta, banaka sartu ziren Leidor antzokian. Argiek ere giro intimista lortzen laguntzen zuten. Kontzertuan zehar kareta, belarriak eta bestelako elementu batzuk ere erabili zituzten musikariek.

Gabriel Aresti biszitan izena jarri diote ikuskizun berriari eta poeta bilbotarra bertan izan zela esan daiteke, behin eta berriz aipatu baitzuen Natxo de Felipek bere aurke-

penetan. Oskorriren eta letren egilearen arteko harremana estua izan zela argi gelditu zen. Ez dugu ahaztu behar bere lehen diskoak Arestiri eskaini ziola taldeak, jadanik oso urruti gelditzen den 1975ean. Izan ziren tartean Arestirenak ez ziren kantak, baina nolabaiteko erlazioa zutenak idazlearekin.

Errepertorio zaharra, aski ezaguna aurkeztu zuten, baina moldaketa berriekin. Lan bikaina egin arren, zaila da entzulea harritzea askotan kantatu dituen doinuekin. Emanaldiaren erritmo lasaia *Bizkaiko aberatsak*, *Astoarena*, *Guretzat*, *Oskorri*, *Aita semeak*, *Sautrela* eta *Gora ta gora beti* abesti ezagunenekin bizkortu zen, ikusentzuleen inplikazioa ere bereganatuz horrelakoetan. Azkenean, propina pareta ere oparitu zioten entzulegoari: *Forjarien kanta* eta *Egia da*. Denboraldi luzean Pub ibiltaria ikuskizunarekin aritu ondoren, betiko doinuegara itzuli da taldea. Abisatu zidan kontzertura joan ez zen beste lagun batek, ETB ematen ari den “Eskerrik asko, Petrov!” dokumentaleko saio batera al nindon esan zidanean.

Tonu intimista eman nahi izan diote ikuskizun berri honi eta boskotea agertu zen Leidorreko taula gainean, azkenaldian ohikoak ziren perkusioa eta baxu elektrikoak alde batera utziaz. Kantari nagusia eta gaien aurkezlea Natxo de Felipe da, beti bezala, kanta bakoitza mimoz prestatuz eta luze azalduz. Gitarra eta perkusioa ere tarteka erabiltzen ditu. Beste beteranoa, Anton Latxa, du laguntzaile gitarra eta ahotsean. Bixente Martinez gitarra elektriko eta mandolinarekin aritu zen. Etxean jokatzen zuen Xabier Zeberriok biolina eta nickelpara eskandinaviarra erabili zituen herrikideen aurrean, tarteka ahotsetan ere lagunduz. Azkenik, Josu Salbide haizezko tresnak astindu zituen: txirula, gaita, alboka, txistua... Musikari ezin hobeak, dudarik gabe, akatsik gabeko interpretazioa burutu zutenak, nahiz eta agian berotasun pittin bat faltan bota haien jarreran. Estreinaldien kontua izango da, hartuko dute martxa. ■

Joxemi Saizar

